

## Gasteizko Legebiltzar-Taldeari

**Gaia:** UPV/EHUko irakasle eta ikertzaile ez iraunkorrei aitortuak dituzten bosturtekoen ordainketa gauzatzeko 2018ko Aurrekontu Legean baimen esplizitua jasotzea.

### AURREKARIAK

- 41/2008 Dekretuan, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen eta ikertzaileen ordainsariei buruzkoa, behin betiko irakasle-ikertzaileentzako Irakaskuntza-merezimenduengatik osagarriak (bosturtekoak) definitzen dira, behin behineko langileak baztertuz.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren gizarte arloko epaimahaiaren 203/2016 sententzian behin behineko irakasle-ikertzaileei bosturtekoak eskatzeko eskubidea onartzen zaie, Europako zuzentarauetan eta jurisprudenzian oinarrituz.
- Epai horren ondorioz, 2016ko maiatzaren 3koa, UPV/EHUK Irakasle eta Ikerlari ez-iraunkorren bosturtekoak eskatzeko deialdiak gauzatu ditu, 2015eko ez-ohiko deialdia barne.
- Deialdi hauetan bosturtekoak ebaluatu eta aitortu dira. Hala ere, UPV/EHUK ez ditu ordaindu aitortutako bosturtekoak, horretarako berme juridikoa behar duela argudiatuz.
- Deialdi hauetan bosturtekoak ebaluatu eta aitortu dira. EHUko zuzendaritzatik bosturtekoak ordaintzeko Eusko Jaurlaritzak 41/2008 Dekretua aldatu behar duela argudiatuz, ez du ordainketarik gauzatu. Ordaintzeko berme juridikoak behar dituela, alegia.
- Kontsidera daiteke irakasle-ikertzaile ez-iraunkorrei aitortutako bosturtekoen ordainketak ez duela finantziario arazo eragiten, izan ere, pentsa baitaiteke erretiratzeko ari diren irakasleek kobratzen zituzten bosturtekoak gehiago direla onartutako berriak baino.
- 2017ko martxoan beste sententzia bat dago (117/2017; Bilboko gizarte arloko 2. epaimahaiarena) non UPV/EHU kondenatzen den irakasle atxiki bati aitortutako bosturtekoak ordaintzera eta kantitate bat zehazten den. Kasu honetan, irakasle kolaboratzaileentzat 41/2008 dekretuan jasotako bost urtekoen kantitatea definitzen du epaileak irakasle atxikiarentzat. Are gehiago, epaileak zehazten du ez dela beharrezkoa 41/2008 Dekretua aldatzea bosturtekoa ordaintzeko. 2017ko irailtik epaia irmoa da.
- Hezkuntza Saila irakasle-ikertzaile ez iraunkorren bosturtekoen ebaluazioaren aurka kokatu da orain arte, helegiteak ezarriz (Recurso

Casación 0000273/2016), edota UPV/EHUK eskatzen zion 41/2008 Dekretuaren aldaketa alboratuz. Jarrera honek irakasle-ikertzaile ez-iraunkorren diskriminazioa eragiten du eta Eusko Jaurlaritza Europako irizpide sozialen /laboralen aurka ipintzen du.

## ESKAERA

1. Eusko Jaurlaritzaren 2018ko Aurrekontu Lege proiektuan Xedapen Gehigarria proposatzea, zeinetan UPV/EHUri baimentzen zaion Irakasle eta Ikertzaile ez-iraunkorrei aitortuak dituen bosturtekoak ordaintzera, horretarako 117/2017 epaian jasotako zenbatekoa izanik erreferentziazko behin behineko kopurua, behin betikoa negoziatu bitartean.

### **Testu proposamena:**

**X.garren Xedapen Gehigarria**, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen langileei dagokiena

1. Lege hau indarrean sartzetik 3/2004 Legearen, Euskal Unibertsitate sistemarena, 34. artikulua 3. puntua horrela gelditzen da:

“3.- Oro har unibertsitateko irakasleen kidegoei dagozkien osagarrien antzekoak ezarri ahal izango ditu Jaurlaritzak, bai kopuruetan zein baldintzetan, lege honetako 14.1 artikuluko kategorietako irakasle kontratatu iraunkorren eta aldi baterakoentzat, baita bereak dituen ikertzaileentzat ere.

Irakaskuntza-merezimenduengatik osagarrien kasuan Irakasle kontratatu guztiei ezarriko zaie, bisitariak eta emeritoak ezik.”

2. Lege hau indarrean sartzetik 41/2008 Dekretuaren 7. artikulua 1. puntua horrela gelditzen da:

“1.- UPV/EHUn kontratatutako irakasleek eta ikertzaileek irakaskuntza-jarduerari buruzko ebaluazio txosten bat eskatu ahal izango diote beren Saileko Batzordeari bost urtean behin, lanaldi osoko arduraldian jardun badute, edo horren baliokide den aldi, lanaldi partzialeko arduraldian jardun badute. Aipatutako txostenean, eskatzailearen lanpostuari dagokion irakaskuntza-jardueraren merezimenduak balioetsiko dira, ezarritako ebaluazio-irizpide orokorren arabera.”

3. Lege hau indarrean sartzen denetik 41/2008 Dekretuaren 7. artikulua  
3. puntua horrela gelditzen da:

“3.- Txostena aldekoa bada, ebaluazio bakoitzarengatik, irakaskuntza-  
merezimenduengatik atal edo osagarri bana jasoko du irakasleak hortik  
aurrera; zenbatekoak honako hauek izango dira, urtean:

- Irakasle osoak: 1.834,32 €
- Irakasle agregatuak: 1.485,72€
- Irakasle Lankideak: 1.257,24 €
- Bitarteko Irakasle ez doktoreak: 1.257,24€
- Irakasle atxikiak eta Bitarteko Irakasle doktoreak: 1.323,46 €